

**LEGE-PROIEKTUA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIO OROKORRARI BAIMENA EMATEN DIONA GASTEIZKO
UDALAREKIN HITZARMEN BAT SINATZEKO, JOSE URUÑUELA UDAL
DANTZA KONTSERBATORIOA INTEGRATZEKO.**

ZIOEN AZALPENA

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita hamargarren xedapen gehigarriak honako hau dio: "Autonomia-erkidegoek ikastetxe publikoen sarean integratu ahal izango dituzte -beren parlamentuen lege bidez ezarriko dute nola eta zer prozeduraren arabera- toki-administrazioen titulartasuneko ikastetxeak, baldin eta legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte, baldintza sozioekonomiko kaskarrak dituzten edo eskolatzeko-premiei erantzuteko lan aitortua egiten duten ikasleei arreta ematen badiete, eta dena delako toki-administrazioak sare horretan sartzeko borondatea adierazten badu.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 16. artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dio irakaskuntzaren arloko eskumena, bere hedadura, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, Konstituzioaren 27. artikuluari eta hura garatzen duten lege organikoak eta Konstituzioaren 149.1.30 artikulua Estatuari esleitzen dizkion ahalmenei kalterik egin gabe.

Bestalde, Vitoria-Gasteizko Udala José Uruñuela udal-kontserbatorioaren titularra da (José Uruñuela da dantzako oinarrizko irakaskuntzak eta irakaskuntza profesionalak ematen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko zentro bakarra), eta hitzarmenak sinatzeko eskumena du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100. artikulua xedatzen duen bezala.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita hamargarren xedapen gehigarrian ezarritako aurreikuspenak eta José Uruñuela Dantza Kontserbatorio Profesionalaren berezitasunak justifikatzen dute lege hau sustatzea, izaera bereziko baita, ez baitago lortu nahi den helburua duen arau-tresna arruntik.

Halaber, bi administrazioek ikastetxe hori Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoen sarean sartzeko borondatea dute. Integratzeko modua hitzarmen baten bidez izango da, eta hitzarmen horren baldintzak eta prozedura jasoko ditu. Lege honen xedea da hezkuntza-administrazioari baimena ematea hitzarmena sinatzeko.

Artikulu bakarra.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari baimena ematen zaio Vitoria-Gasteizko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko, José Uruñuela Dantza Kontserbatorio Profesionala ikastetxe publikoen sarean sartzeko.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Esku hartzen duen administrazio bakoitzak integrazio-espeditentean sartu beharko du integrazioak planteatzen dituen funtsezko arazoak ebazteko behar den dokumentazio guztia –langileak, ondare-eragiketak, aurrekontu-kredituen araubidea, kontratuak eta

bestelako betebeharrak, eta abar–, eta hori nahitaez erantsi beharko zaio hitzarmenaren espedienteari.

AZKEN XEDAPENA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko xxxxaren xxa.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.